

ALTZA PORRU!

2010eko urria / 39. zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ • TEL.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418-01

TOLOSAN OSPATUKO DA NAZIOARTEKO IX. TRIKITIXA JAIALDIA

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek antolatuta, bederatzigarren edizioa du dagoeneko Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak. Urteroko formatuari eutsiko dion arren, aldaketa nabarmen batekin dator aurtengoa; Donostiatik Tolosarako saltoarekin, alegia.

Soinu txikia munduko beste hamaika txokotan nola jotzen den erakusteko asmoarekin antolatzen dugu urtero Nazioarteko Jaialdia. Hala, trikitilari euskaldunekin batera, atzerriko soinu-joleak arituko dira taula gainean: Kataluniatik, Italiatik eta Britainiatik etorritakoak. Aurkezle lanetan arituko diren Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek, gainera, saio honarako propio sortutako aurkezpen-emanaldia eskainiko dute.

Honokoak izango dira partaideak:

EUSKAL HERRITIK

- **KUPELA:** Zabalek (trikitixa), Larrañagak (panderoa, aho-tsa) eta Berastegik (perkusioa) osatzen dute taldea. Erromeriatan urte luzetan arituak, festarako eta dantzarako musika alaia egiten dute. Aurten kaleratu dute beren azken lana: *Arriskua Maite*.
- **XABI ABURRUZAGA eta JOSE URREJOLA:** Folk munduari lotua dagoen trikitilari berritzailea da Xabi Aburruzaga. Taldekide duen Jose Urrejolarekin batera, *Denboraren Naufragio* diskoan bildutako doinuak joko dituzte bikote formatoan.
- **MIRARI AZKUNE eta AITZIBER OTEGI:** Txapelketatan hasi eta beste hainbat bikotekiderek inoiz ondoren, elkarrekin aritzen dira gaur egun erromeriak alaitzen. Biek abestuta, kantu tradizionalak eskainiko dituzte jaialdian.



KATALUNIATIK

- **BLAI CASALS eta MANU SABATÉ:** Kataluniako musika tradizionalarekiko zaletasuna gordetzen dute musikari gazte hauek. Blai Casals akordeoi diatonikoa hartuta etorriko da eta Manu Sabaték klarinetearekin eta *grallarekin* lagunduko dio.

ITALIATIK

- **FILIPPO GAMBETTA eta CLAUDIO DE ANGELI:** Kutsu tradizionala duen autore musika jotzen du Filippo Gambettak soinu txikiarekin. Claudio de Angelik gitarra akustikoarekin jantzi-ko ditu bere doinuak.

BREITAINIATIK

- **IMOSIMA:** Talde honek Irlandako eta Quebec-eko musika ere egiten duen arren, jaialdirako, Britainiako dantzarako musika tradizionala eta sorkuntza berriak uztartuko dituzte Audrey Le Jossec soinu txiki jotzailearen ukitu bereziarekin.

NON: Tolosako LEIDOR antzokian

NOIZ: Azaroaren 5ean, ostiralez, 22:00tan

BIHARAMUNEAN, GETXON

Bizkaiko Trikitixa Elkartek antolatuta, Tolosako jaialdiaren biharamunean, Getxon arituko dira soinu-jole berberak. Aretako Andres Isasi musika eskolan izango da Bizkaiko Jaialdia. Eta hau bukatutakoan, *triki-session* saioa izango da Aretako bertako Glass tabernan. Bizkaiko jaialdiaren ondoren, jada ohitura bilakatu da, jaialdian aritutako soinu-joleekin batera jotzeko aukera eskaintzen duen tarte hau.

NON: Areetako (Getxo) Andres Isasi musika eskolan

NOIZ: Azaroaren 6an, larunbatez, 19:00tan

IZEN HANDIKO SOINU JOLEEN PIEZA BERRIAK, GEURE KOLKOTIK DISKOAN

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak lau urte daramatza diskogintzan. *Faborez* bildumarekin, pieza zaharrak berreskuratzeko bidean, ikerketa eta dokumentazioa landu ditugu. Lan berri honekin aldiz, beste lan ildo bati eutsi diogu: sorkuntza indartzeari. Hala, bost soinujoleren pieza berriak bildu ditugu *Geure kolkotik 2010* diskoan.

Soinu txikia eta perkusioa bakarrik entzungo dituzue lan honetan. Izan ere, bikote batek zuzenean jotzeko moduan grabatu dituzte piezak. Formatu txikian. Panderoa aukeratu dute pieza askotarako, baina badira bestelako perkusioak ere. Gisa guztietako doinuak entzun litezke diskoa osatzen duten hamabost piezatan. Soinujole bakoitzak hiru pieza sortu ditu lan honetarako:

KRISTINA SOLANO: Urte luzetan Amaia Orejaren ondoan ikusi genuen erromeriak alaitzen. Kristinak eta Amaiak *M-n ezten* taldea sortu zuten ondoren eta izen bereko lana kaleratu. Lan honetan, Amaiak, anaia Xabik (Etzakit, Esne Beltza...) eta Xabier Azkaratek lagunduta aritu da.

EDURNE ITURBE: Hamaika txapelketa irabazitako soinu jole trebe hau irakaskuntzan eta epaimahaikide aritzen da gaur egun. Oihana Irastorza oiartzuarraren panderoak eta ahotsak lagunduta, molde tradizionalako trikitixa, fandango eta arin-arin bana sortu ditu.

MAIXA: Ixiar Orejarekin batera, plaza-talde arrakastatsuenetakoa osatu zuen, harik eta 1999ko hondarrean banatu ziren arte. Harrez gero, bakarka ere aritu da Maixa Lizarribar, eta hala plazaratu zuen *Sentitzen naiz* diskoa. Azken urteetan bide-lagun duen Ines Osinagak (Gose) lagundu dio.

URTZI ENRIKEZ: Bizkaiko harrobitik, Iñaki Zabaletaren eskolatik ateratako trikitilari gaztea, Oxabi erromeria taldearekin aritu da azken bizpahiru urtetan. *Faborez 02* diskoan bezala, Gorane Sagastik jo du panderoa eta Ion Eguskiza ere laguntzaile izan du.

IZER: Etxeko tradizioari segika, txiki-txikitatik aritu da Iosu Arrizabalaga "Izer" trikitixa munduan. Azken urte luzetan Mikel Gorrotxategi "Alabier"-ekin ibiltzen da plazarik plaza. Diskoan ere elkarrekin aritu dira eta Eli Uria izan dute baterian laguntzaile.

Azaroaren erdi aldera aurkeztuko dugun diskoa ohiko saltokietan izango duzue aurrerantzean salgai.



DURANGOKO LIBURU ETA DISKO AZOKAN IZANGO GARA AURTEN ERE

Hilabete besterik ez da falta euskal kulturgintzaren hitzordu garrantzitsuenetakoa iristeko: Durangon egiten den euskal liburu eta disko azoka. Azken urteetan bezala, bertan izango dira Euskal Herriko eta Bizkaiko Trikitixa Elkarteak. Bi elkarteek elkarrekin banatzen duten postuan, *Faborez 04*, *Geure Kolkotik 2010* eta 2011ko egutegia izango ditugu nobedadeen artean salgai. Aurtengo egutegiak izan duen arrakastaren bidetik, mahai gaineko egutegia prestatu dugu datorren urterako ere; erromeriatako irudiez osatua. Abenduaren 4tik 8ra izango da Durangoko 45. azoka.

Disko berriak

GOSE

Arrasateko taldeak azaroan plazaratuko du beren laugarren lana. DVD eta CD-z osatutako sorta izango da. "Aurrekoekin alderatuta, ezberdina, berezia, sukaldeko lana erakutsiko duena eta lagun artean egina" da lan berria Ines Osinaga taldeko soinujoleak kontatu digunez. "Diskoak inork gutxik erosten dituen hontan, guk DVDarekin batera, opari emango dugu diska". DVD bete-betea prestatu dute, besteak beste, dokumentala, Japoniara egindako bidaia, kontzertu oso bat, bideoklipak eta abar jasoko dituen. Eta diskoan: kolore berri batek lagunduta, GOSE-ren 12 kantu, 12 lagunekin.



TRIKITIXA IRAKASLEEN ZERRENDAA

Elkartean sarri jasotzen ditugu, musika eskola eta gainerakoetatik, soinu edota pandero irakasle bila dabiltzanen eskaerak. Halakoetarako, trikitixa irakasleen lan poltsa modukoa osatu nahi dugu; inork soinu edo pandero irakasle baten eske deitzen duenean, zerrenda horretara jo ahal izateko. Hortaz, nahi izatera, izen abizenak, jotzen irakasten duzuen tresna eta udalerrria aipatuz, posta elektronikoa bidal dezakezue trikitixa@trikitixa.net helbidera.

OÑATIKO II TRIKITIXA JAIALDIA, URRIAREN 30EAN



Ilizargarate trikitizale elkarteak urriaren 30erako antolatu du Oñatiko bigarren Trikitixa Jaialdia. Iaz abiatutako egitasmoak izandako arrakastak bultzatuta, bigarren-gez antolatu duten jaialdi berezi honetan, Primi Erostarbe zenari omenaldia egingo diote.

Honokoak izango dira partaideak:

- Oñatiko musika eskolia
- Izer aita-emeak eta Alabier
- Joseba Tapia eta Estanga anai-arrebak
- Ospas eta Janire
- Landa aita-emeak
- Lajatarrak eta Oriatarrak

NON: Oñatiko Santa Ana aretoan

NOIZ: Urriaren 30ean, larunbatez, 18:30tan

HASI DA ARISTERRAZUKO ERROMERIA SASOIA

Aiako Andatza auzoko txoko honetan gogor eusten diote iganderoko erromeriari. Uda partean, batean eta bestean festak izaten direla-eta, ez dute bertan erromeriarik egiten, baina udazkenean sartuak garenez gero, hasi da Aisterrazun jaieroko hitzordua. Urriaren 24an Laja II eta Narbaiza aritu ziren. Hurrengo hitzordua, urriaren 31n: Astiasaran, Izer eta Lutxurdiorekin.

ETXALARKO ELIZAGOIEN AHIZPAK IRABAZLE, ZARAUTZEN ETA ARTADIN

Irailan jokatu diren bi trikitixa txapelketa irabazi dituzte Etxalarko elizagoien ahizpek: Zarauzko eta Artadiko trikitilari gazteen txapelketak. Hona hemen txapelketa horietako sailkapenak:

ZARAUZKO TRIKITILARI GAZTEEN XXX. TXAPELKETA (irailak 8)

Irabazleak: Itxaso eta Irune Elizagoien (Etxalar)

Bigarren: Edurne Errandonea (Andoain) eta Ander Beldarrain (Aia)

Hirugarren: Ander Beldarrain (Aia) eta Eneritz Aulestia (Zarauz)



ANDONI LIZARRALDE

ZUMAIAKO ARTADIKO XI. TRIKITIXA TXAPELKETA (irailak 26)

Irabazleak: Itxaso eta Irune Elizagoien (Etxalar)

Bigarren: Ander Zabaleta (Gasteiz) eta Jone Pagaldai (Aretxabaleta)

Hirugarren: Edurne Errandonea (Andoain) eta Ander Beldarrain (Aia)

GALBAHEA

- Elgoibarren hainbat ikasledek soinu joz egin zuten ikastetxerako bidea ikasturteko aurreneko egunetan. Horren harira, **Mikel G. Gurpegi** idatzitako "no sin mi trikitixa" izeneko artikularen zatia. "Ideia hain ona izanda, umeen eskolarako bidetik haratago zabaldu beharko litzatekeela. egunerokotan, makina bat izaten dira abokatu bufeteetarako joan-etorriak, Ogasunaren egoitzetara, edozein bulegotara, psikologoarenenera, notarioarengana... zer dakit ba nik! Hamaika joan etorri, adinez nagusi garenok, soinu eta panderoarekin hobeki eramango genituzkeenak. (...) Nik gustora deituko nieke trikitilari "kamioi goiza" egokitzen zaidanero. Hala deitzen dien udazken/ neguko goize, zakur guztiak niri zaunka ari direla eta kamioi guztiek nire buru-barrenetatik pasa behar dutela diruditen goize. Badakizue, batek trikitixa behar izaten duen momentu horietakoak".

- **Mikel Gorrotxategi "Alabier"**: "Plazan berriz, geu gara trikitilari gazteenetakoak... Izer eta biok; 30na urte ditugu eta 15 urte darantzagu plazaz plaza. Azkenengo belaunaldia izango garela esan ohi diogu elkarri eta baita dantzara animatzen zaizkiguneri ere. Horiek uzten dioten garaian, guk ere utzi egin beharko diogu jotzeari. (...) Nahiz eta lehenagoko urteetako mugimendurik ez egon, erromeriak oraindik ere bizirik daude. Jendea dantza gosez dago eta jarrai dezala horrela urte askoan. Horrez aparte, txapelketa nagusia berriz ospatzea ere ez litzateke gaizki etorriko, bai trikitilariarentzat eta baita zaleentzako ere.

(Bultzada aldizkaria, 2010eko urria)

- **Pako Aristi**: Trikitixa ikasten hasten den Nemesio izeneko ume baten istorioa jorratu dut; bere ama-ekin bizi den mutiko bat da protagonista. Aita ez dago etxean, eta amak ez dio ezer esaten aitari buruz. Amak Nemesiori trikitixa ikasten hasteko agintzen dio, eta hasiera batean, Nemesiok ez daki trikitixa gustatzen zaion edo ez. Hori da istorioaren abiapuntua, baina aurrera doan heinean, aldaketa batzuk sumatuko ditu etxean, eta Nemesio aldaketa horiek ikertzen hasiko da pixkanaka. Trikitixaren inguruan idaztea nahi nuen. Ez dago ia ezer trikitiaren munduari buruz idatzita eta betidanik iruditu izan zait gai polita jorratzeko. Horrez gain, gurasoen nahiak askotan obligazioa bihurtzen direla azaldu nahi izan dut liburu honen bidez. Maiz ez da errespetatzen umearen askatasuna, eta gurasoek beren frustrazioak estali nahi izaten dituzte seme-alaben bidez.

(Urola Kostako Hitza, 2010-10-08)

ZESUMA

XABI ABURRUZAGA GETXO FOLKEN

Xabi Aburruzagaren emanaldiak itxi du aurtengo Getxoko folk jaialdia. Joan den irailaren 12an eskaini zuten Portugaleteko trikitilariak kontzertua hainbat lagunez inguratuta : Oskorriko Natxo de Felipe eta Anton Latxa, Mikel Markez, Amaia Oreja, Oreka TX eta dozena bat dantzari izan zituen taula gainean lagun.

ESNE ZOPAK, JAPONIAN

Esne Zopak taldeak kontzertu bira egin du Japonian. *Japan Tour 2010* izenarekin, Esne Beltzaren "bertsio akustikoa" eskaini dute. Urriaren 10ean Toyota Rock Festival ospetsuan aritu dira eta beste sei kontzertu ere eman dituzte. Trikitilari zaharren omenez, iaz kalera-tutako *Esnasaltzailearena* diskoan bildutako piezak eskaini dituzte.

